



# TXANTXIKU ARRUNTA

## *Alytes obstetricurte*

### TAMAINA

4 zm


### ITXURA

Txantxiku arruntak itxura orokor trapala du, hanka laburrak, eta mutur borobildua.

Azal leuna du, grisaxka, marka ilunagoekin eta pikor ttipiekin. Saihetsetan pikor gorriakako bi lerro egon daitezke.

ESPEZIE  
BABESTUA  
HARRAPATZEA  
EDO HILTZEA  
DEBEKATUA DA

## NOLA IDENTIFIKATU?



### NOIZ?

- > Martxotik urrira
- > Gauz edo eguraldi euritsuz

### NON?

- > Uraren ondoan
- > Larreetan, parkeetan
- > Hezeguneetan
- > Harrobietan

**Bere kantua entzun >**



Bere kanta Apo hontzarenarekin nahas daiteke (ez da ohikoa Ipar Euskal Herrian).

## AURKEZPENA

### BIZI ESPERANTZA

7 urte

### ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Intsektuak, armiarmak, zizareak eta bareak jaten ditu.

Txantxiku arrunta maiz kolonia ttipietan bizi da. Negua hainbat babeslekutan iragaiten du.

Ugalketa oso berezia da, arraultzak uretan eman beharrean arrak eramaten dituelako. 20-45 egunez 20-70 arraultza atxikitzen ditu.

Zapaburuak arraultzetik ateratzeko prest egon bezain laster, arrak uretan sartzen ditu. Zapaburuak berehala ateratzen eta urean itxuraldatzen dira.

## BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Giza ingurune batzuetara ongi egokitzen denez, Txantxiku arrunta arriskuan ez dela pentsa daiteke, baina mugitzeko gaitasun gutxi duenez (ehun bat metro), habitaten zatiketarekiko bereziki sentikorra den espeziea da.

Zoritxarrez, azkenaldian Txantxiku arruntan kopurua garbiki jaitsi da. Laborantzaren intentsifikazioa, erruteko tokietan duen eragozpena, habitaten suntsitzea eta kutsatzea dira espezie honen mehatxu nagusiak.

Alta, Txantxiku arrunta ingurune batzuen oreka ekologikoarentzat baitezpadakoa da, eta beraz, espeziea eta bere inguruneak babestea funtsezkoa da.